

# Nafarkaria

• ostirala • 2000ko abenduaren 3a


**Egunkaria**

**Gehigarri honetan**



**Larraintzar** • Sareko herri irratia gaur bilduko dira, euren elkarlana eta kezak aztertzeko

**Rosa Urrea** • «Bizitza pribatuko zereginetan ematen dugun denbora baloratu nahi dugu»



• OSKAR MONTERO

Duela hogeit hamar urte laxoa izeneko pilota joko mota berreskuratzen hasi ziren Baztan eta Malerrekan. Eta duela bi urtetik hona paxaka izeneko jokoa ere berreskuratzen ari dira. Laxoan udan besterik ezin da jokatu, eta, horregatik, paxaka haren osagarri da. Baina, diotenez, aisago izanen da paxaka berreskuratzea, ulertzeko eta jokatzeko errazagoa baita. Bidean da, bederen.

**Paxaka,  
laxoaren  
berreskuratze  
bidean**

• OSKAR MONTERO



## Larraintzar ●

Herri  
irratien  
topaketa

Xorroxin irratiko kideek euren esperientzia kontatuko diete gaur Sareko irratietako kideei. ● GARI GARAIALDE

Informazioa trukatzea eta koordinazioa sortzea izanen da topaketaren helburu nagusia

**Gaur arratsaldeko lauretan elkartuko dira Larraintzarren Nafarroako Aralar, Beleixe, Esan-Erran, Karrape, Irati eta Xorroxin irratiak. Gonbidatu gisa, Iruñeko Euskalerrria irratiko kideak eta Hernaniko Molotoff irratikoak egonen dira.**

**B**I HILABETE BESTERIK EZ darama Sareak lanean, eta erronka berriak jorratu dituzte dagoeneko. Urriaren 2an osatu zuten Sarea Larraingo Aralar irratia, Sakana-ko Beleixe irratia eta Basaburua-Ultzamaldekoko Esan-Erran irratia. Programazioa elkartu, eta irratia horietako erratari guztien ahotsak entzuten ahal dira aipatu inguruetan goizeko 10:30etik eguerdiko 12:30era.

Hiru irratia horien arteko koordinazioa erabatekoa da. Harere, herri irratia txikiak

izanda, urte gehiago lanean daramatenen esperientzia entzun nahi dute. Esan-Erran irratiko erratari Fermin Gartzitorenak adierazi duenez, «jardunaldi honen asmoa da irratia txikiak elkartzea, eta programazioa parekatzea, ikustea zer lantzen dugun eta nondik lortzen dugun informazioa, ez baitakigu askotan nora jo. Ateak zabaldu nahi ditugu eta gure artean harremanak sendotu».

Bertatik bertakoa nola landu da, beraz, irratia horiek duten kezka nagusia. Horrega-

tik, hain zuzen ere, topaketako lehendabiziko hitzak Baztanen, Bortziritan eta Maierrekan aritzen den Xorroxin irratia izanen dira, irratia horrek sortu zenetik sekulako jautzia eman baitu: programazioa zabaldu, eta hainbat herrietan estudio berriak paratu, besteak beste.

Hurrengo gonbidatua Hernaniko Molotoff irratia izanen da, herri handi batean kokaturik dagoen irratia. Gartzitorenaren erranetan, «Hernanikoak gonbidatu genituenean, interes handia adierazi zuten,

haiek ere gure kezka berak dituztelako».

Jardunaldiari amaiera emateko, Euskalerrria irratia arratsaldean emititzen duen *Metropoli forala* saioaren egileek hartuko dute parte. Joan den urtean sortu zen irratsaio horren egitura eta funtzionamendua ezagutu nahi dute Sareko kideek. «Iratia ulertereko beste modu bat da, erabat berria: bertan egiten diren elkarrizketa motak, nola lantzen dituzten jakin nahi dugu», dio Gartzitorenak.

Hauxe izanen da Sareak antolatu duen lehendabiziko topaketa, baina jarraipena izanen du. Akaso, tratatzeko hurrengo gaia teknologia berriak eta digitalizazioa izanen da. Topaketen ateak zabalik egonen dira bildu nahi duen orrendako. Hitzordua Larraintzarren da, AEKren euskaltegian, gaurko arratsaldeko lauretan.

→ Txari Eleta

Iruñea

Nafarren  
Biltzarra  
igandean

NAFARROA OSOKO 50 BAT kultur elkarte biltzen dituen Orreaga elkargunak antolatuta, igandean Nafarren Biltzarra ospatuko dute. Iruñean. Bi urte daramatza Orreagak halako eguna antolatzen, San Frantzisko Xabierren omeneko eguna «herritarteko». Orreagakoek ustez, egun horrek kutsu ofizialistegia du. Aurreko urteetan *Merindadeen Eguna* deitu zioten ospakizun honi, baina zuzentasun historikoagatik, Nafarroa Beherea ez baita inoiz merindadea izan, *Nafarren Biltzarra* izena nahiago izan zuten.

Igandean ahalik eta nafar gehien biltzen saiatuko direla Orreagakoak. Horretarako, *Gure kultura defenda dezagun* lelopean, hainbat ekitaldi antolatu dituzte. 11:00etan, bi kalejira abiatuko dira dantzari, fanfarre eta zantzarrekin. Bi kalejirak Sarasate pasealekuan elkartuko dira, eta han, Foruen monumentuaren aitzinean dantzatuko dute. Bertsolarien eta txalapartaren ostean, Bixente Serrano historialariak Orreagaren mezua zabalduko du. Ondoren, Jose Maria Blazakok hitz egingen du Erriberako ordezkari bezala. Nafarroa Beherearen agurra Antton Hariñordokik egingo du. Gero, herri bazkaria izanen da, Amaia kirol hirian. Izena emateko deitu 948-222246 edo 948-210422ra.

→ Asier Azpilikueta

Massilia a Caesare  
capitur

AITOR TXARTERINA



## Demokrazia eta errepublika

**E**timologiara jotzen badugu, zentzu herriaren, demokrazia kontzeptuak bi atal ditu. Bata demo da eta bigarrena bezala Greziazatik heldu da guregana. Erranahia: Herria. Bigarren atala kratós-etik dator. Horrek, grekeraz indarra edo domeinua erran nahi du. Herriaren indarra edo, zentzu zabalago batez, herriaren boterea litzateke demokrazia.

Kontu handiagoz erabili behar ditugu hitzak. Erabili beharko bederen.

Demokrazia hitza, adibidez, barra-barra darabilgu han-hemenka. Izan ere, mundu osoan hedatu zaigu kontzeptua, behin eta berriz 100.000.000 aldiz sinestara dizkiguten salbuespenak salbuespen direla.

Dagoeneko sei mila milioi pertsona bizi gara

eta sinesgaitza zaigu asanbleen bitartez bizitza politikoa eratzea. Nekez topako gure Iruñeko Donibane auzoko bizilagun oro jasoko lukeen azpiegitura -antzoki, kongresu areto edo...-. Horrez gain, ezinezkoa da elite-rik gabeko erakunde aipatze hutsa. Soziologian klasiko bat da R. Michelsen Alderdi politikoa. Demokrazia modernoetako joera oligarkikoen azterketa soziologikoa lelopean ingelesez 1962an argitaratu zen liburua. Argigarria egungo demokraziak hobeki ulertzeko. Liburu horretatik atera nuen ezagupide nagusia elitei zegokien. Edozein erakunde sortu eta birsortu egiten dituzte eliteak, tipia izanik ere. Hor amaitzen omen dira joera asanbleariodun lagunen ametsak. Egia errateko, hor hasten dira.

Informazio gardena eta zuzena, botereguneen kontrola, ordezkatzeko politiko zintzoa eta murrizta, parte hartzeko parada zabala, ardura banaketa... dira demokraziaren osagaiak. Horiek aztertuz jakinen dugu balizko demokrazia osasuntsua den ala plastikozko panpina saldu diguten.

Espanian ari dira egunotan manera argigarrian ospatzen Juan Carlos I.aren botere hartzearen 25. urteurrena. Pertsonaia hori tabu da. Espainiako armadaburu izateaz gain, demokraziaren bermatzaile omen dugu.

Amaitzeko, zenbait galdera: Nork izendatu zuen postu horretarako? Ez ote zen Espainiako errepublika frankismo aitzineko era legala? Zerk eta nork legitimatzen du erregetza gaur egun? Zergatik? Biba errepublikaltzeko tenorea dugu.



Lizarra ●

# San Andres feriak

Bihar eta etzi egitarau oparoa izanen da Lizarrako patroiaren eguna ospatzeko



San Andres ferietan, ohiko ganadu feriaz gain, Estellerriko ardoen dastaketa eginen dute. ● EGUNKARIA

**Aste osoan San Andresen omenez egin diren ekitaldiek bihar eta etzi izanen dute amaiera, egitarau zabal eta mamitsu baten baitan. Ekitaldien artean aipagarria ganadu feria da, batetik, mendez mende egin baita, eta, bestetik, Estellerriko I. Ardo Feria.**

**U**DAZKENAK ZUHAITZ ADARretako hostoak airatzen dituenen eta orbela agertzen denean, Lizarrako feriak hurbil dauden seinale izaten da. Horrela, bihartik aitzina zer ikusi anitz izanen da Lizarrako hainbat txokotan, San Andres ferietarako prestatu duten egitarauaren

barruan. Ekitaldien artean, aipatzekoa da Donejakue plazan, ezkien babespean, eginen den ohiko ganadu feria. Han, igandean, goizez eta arratsaldean, salgai eta ikusgai izanen dira zaldi, moxal, behor eta astoak, bertzeak bertze.

Hauxe da Lizarran mendez

mende iraun duen tradizioa. Izkribu zaharrek diotenez, XVIII. mendetik egin izan da feria San Andres egunean, eta lehenagotik ere egiten ziren antzeko feriak. Garai batean, baserriarrak abere gehiagorekin jaisten ziren hirira, plaza bete-bete egoteraino. Egun, berriz, abere

gutxiago izaten da —dezente biltzen dira, hala ere— Donejakue plazan, eta salmentak ere urtez urte mantendu egiten dira.

Baina ohiko azienda feriaz gain, aurtengo egitarauak berrikuntza nabarmenak ekarri ditu. Horrela, Estellerriko ardo eta cava erakusketan eginen dute bihar, Foruen plazan, 11:00etatik aitzina. Halaber, ardoarekin zerikusia duten artisau-lanbideen erakustaldia eginen dute goizean. Eta arratsean, Estellerriko ardoa eskainiko diote hara joaten den orori. Ardoaren inguruko argazki eta narrazio lehiaketan sariak ere bihar emanen dituzte. Tartean, musika kalejirak izanen dira karriketan gora eta behera.

Igandean, ganadu feriaz landara, Estellerriko artisau eta nekazaritzako produktuen erakusketa eta salmenta izanen da Foruen plazan. Bertan, 11:30ean, Idiazabalgo gaztak dastatu ahal izanen dira, eta 13:00etan, San Martin plazan, hamabi orduz sutan erretzen izanen duten Nafarroako txekor haragia banatuko dute. Egitaraua ohiko pilota partiduekin amaituko da.

San Andres ferietako programak 11 milioi pezetako aurrekontua du. Horietako hiru Lizarrako Udala jarri ditu eta gainontzeko zortziak, Teder taldeak.

→ Kristina Beriain

**herri aldizkariak**  
Edurne Elizondo

## Xokoletaren erakustegia Miarritzen

Txokolate edo xokoletaren inguruan egin du **Herria** astekariak erreportaia bere azken zenbakian, Miarritzen zabalik den erakustegia dela eta: «Xokoleta zer den, zertarik egiten den eta nola, horiek denak jakin ditazke itzuliño bat eginez Miarritzen xokoletaren ohoretan idekia den erakustegi hori muntatu zuten duela lau urte bainan joanden udan tokiz kanbiatua da, handiturik eta aberasturik plantatua Beurivage auzogunean, Bidarterat buruz itsas-hegiz ateratze hortan. Zendako bada xokoletaren erakustegi

bat Euskal Herrian? lau mende hontan, aintz xokolet-egile izan delakotz hemen gairi eta oraino ere xokolet-egile horietarik badelakotz dotzenaño bat».

«Europar xokoleta etzen batere eza gutua espainolak Ameriketat abiatu aintzin. Ertameriketan aldiz, nun nahi egiten zen xokoleta, izena bera ere handik heldua da funtsean. Hango xokoleta, haatik, guk orai jaten edo edaten dugunaren aldean, biziki arrunta zen. Arti irinarekin nahastekatua ardura eta bipez mota askore-

kin. Halako pasta lodi bat edari bilakatzen zena ur zorta bat emanez gainerat».

«Hamazazpigarren mendearen hasetsuan da Baionarat helduko, Espainiatik kasatu judu batzueri esker. Judu horietarik parrasta bat Santesprietako auzogune hortan plantaturik. Gerorago Espainiako erregaren alaba esposatu zelarik Luis XIII. arekin, nola berak biziki maite zuen xokoleta, Parise aldeko handieriari ezagutarazi omen zuen eta hola hedatu zen xokoletaren fama».




urdai  
aren  
mintzoa

Xabier Larraburu


## Katedratikoaren Kanthoria

Takoneran izan zen. Horrela esanda, leku arrunt batez ari garela eman lezake, baina Naturaren sinboloa izan litekeen eremu batez ari gara (oroitu Nadel, 1967), edo Herrioreana (Falco, Severino). Udazkenean Natura lotara baitoa, eta loa hilobiaren metafora izan baita mendeetan (Polibio, Suetonio, San Agustín, hurbilago Harkaitz Cano). Beraz, Takoneran, leku sinboliko horretan, ikusi nuen neska: neska ezezaguna, ederra, neska-neskaren arketipoa-prototipoa (Haldemar), eta mementoan zer edo zer zirimolatu egin zitzaidan ariman (Valconi, Schefer), zer edo zer oldartu zen nire zerebeloan (Joutard); segituan ulertu nuen, bizitzan zenbaitean gertatzen ohi denez, erabakia-aren esparrua informaziorik ezaren pean zegoela deblauki (Marx, Mandelbaum, zorrotzago Heissenberg). Dena den, eta egitekorik ez nuenez, egitekoa zentzu positiboan, Meta-tua (Lucas, 1899) edo Balizkoa (Pierre Dufuil), neskaren atzetik segika joatea bururatu zitzaidan, eta, karkar-kar, hau ironia!, gehienetan gertatzen den moduan, aisiaren luzapenaren ideiak hasiera batean gatibatu egin ninduen (Hexter, Collingwood, 1650) eta zainetatik bero eder bat kausitu nuen (adrenalina eta leukozitoen arteko harremanez, ikus Thomas Baltimore, Blood and Blood, Harvard 1975), baina gero halako beldur narras batek harapatu ninduen: «Eta neskak, buelta emanda, zelatan ikusten banau... orduan zer?». Giza-ahaleginaren egituraren muina kolokan jartzeko galdera eraginkorra ikusten duzenez (Haldemar berriz ere; sakona tipoa, ahanztezina!). «Beno — segitu nuen —, ikusten banau hobea! Ea gure begiradek topo egitean, zer edo zer berria, funtsezkoa, denbora historikotik at (Morin), sortzen duten elkar!». Horregatik, diot, sakelako telefonotik deitzen ikusi nuenean ez nuen deus ere susmatu, susmatzea informazio kopuruaren araberako ondorioztatze finko bat bada (Perrault, Foulcault; nahasiagoa De Lancren), Komisario jauna!, eta horrexegatik ere polizien autoak inguratu nindutenean zur eta lur gelditu nintzen, Komisario jauna, eta hau da azal dezakedan guztia, labur esanda eta modu argian, inongo hieroglifikozismorik gabe (Truman). ●





# Paxaka, laxoaren bicetik



Bi taldeetako batek jokia irabaztea lortzen duen bakoitzean, sakean zirenak errestora pasatzen dira, eta errestokoak sakera. ● OSKAR MONTERO



Paxakan pilota behin bakarrik jo daiteke eskularruarekin. Atxikia, pilota tresna gordetzea, debekatua da. Akaso, jokoaren zailtasun nagusia pilota handia mugitzea da. ● OSKAR MONTERO

## Paxaka pilota jokoaren arauak

1. Paxaka izeneko jokia eskularru motzarekin jokatzen da, frontoi erdian sare bat dagoela.
2. Jokalekuaren neurriak frontoiarenak berarekin dira.
3. Sareak bi zati berdinetan banatzen du jokalekua: saka aldea eta erreto aldea. Muturreko loturretan sareak lurretik 1,40 metrora egon behar du, ongi teinkaturik, erdian ere berdinduta egon dadin.
4. Talde bakoitzak hiru jokalarik ditu.
5. Lehen saka zozketa bidez erabakitzen da.
6. Sakea egin aitzin, sakalariak beste taldekoak abisatu behar ditu. "jo" erranez. Errestoan direnak prest daudela adierazi behar dute, eskularrua goratuz edo zerbait erranez.
7. Sakea egiteko, besoa behetik gora higitu behar da. sotamanoan, eta ez zeharki edo goitik behera. Hala eginez gero, falta erdia izan da.

8. Sakea egiterakoan, sakalariak saka aldeko atzealdean egon behar du bote pilotarekin. Bestenaz, falta erdia egiten du.
9. Sakalariak jaurtiriko pilotak erreto aldeko atzealdean dagoen 4 x 5 metroko koadro batean erori behar du. Bestenaz, falta erdia izan da.
10. Sakearen erretoa ezin da airez egin, botea egiten utzi behar da.
11. Sakalariak jaurti duen pilotak sarea ukitu edo motz gelditzen bada, falta erdia da.
12. Sakea behar bezala egin ez bada edo pilota adierazitako eremuan erori ez bada, sakalariak bigarren sakea egiteko aukera du.
13. Sakalariak, jarraian bi falta egiten dituenean, kintzea galtzen du.
14. Pilota behin bakarrik jo daiteke eskularruarekin. Atxikia, eskularruan pilota gordetzea, debekatuta da.

15. Eskularruarekin, eskuarekin edo gorputzaren beste atal batekin sarea ukitzea edo gainditzea debekatuta da. Hori egiten duenak kintzea galduko du.
16. Nahitaezkoa da pilota sarearen gainetik pasatzea ontzat jotzeko. Pilotak sarea ukitzen badu eta beste aldera erortzen bada, ona da.
17. Taldeko edozeinek egin dezake sakea. Baina falta erdia eginez gero, bigarren sakea aurrekoaren pilotari berak egin behar du.
18. Jokalekuan nahi bezala mugitzeko aukera dute jokalariek guzkiek, eta lekuz alda daitezke.
19. Kontabilitatea laxo jokoaren berdina da; hau da, jokoen arabera. Bederatzi joko egiten duen lehenengoak irabaziko du partida.
20. Jokoa egiten den bakoitzean taldeek zelai aldea aldatzen dute, sakean zirenak errestora eta alderantziz.

Hurrengo asteburuan paxaka pilota jokoaren bigarren txapelketa hasiko da, hamabost talderekin

Laxo elkarteak hogeita bat urte eman ditu laxoa izeneko pilota joko berreskuratzen. Baina laxoan, estalperik gabeko frontoian jokatzen denez, udan bakarrik joki daitezke. Pilotariak neguan aritzen diren paxaka pilota joko mota berreskuratzeari ekin zioten hiru urte. Eta, dirudienek, errazagoa izan da paxaka berreskuratzea.

Laxoa paxaka jokoek Erdi Aroko parta dute jatorria. Laxoa elkarteak lehendakari Tiburtzio Arrastoa esplikatu duenez, hiri Ipar Euskal Herrira etorri zitzaizkion eta hortik, Nafarroa Garaiko iparraldeko Aspaldi udaldira eta elizen arkupeko jokatzen omen ziren, tresnarik gabe. Babi joko hauek hiltzear zeuden 70eko hamarkadaren bukaeran; apenas jokatzen partidarik. Duela hogeita bat urte Laxo elkarteak izen bereko jokia berreskuratzeko lanean hasi zen. XXI. Laxo Txapelketan egin dute aurten, dozena bat talderekin jokatzen urteetan, Bertizko partzuergo jokoaren laguntza izan dute.

### Udan eta neguan paxaka

Laxoan udan bakarreko eta 70 metro luzerako frontoi jokatzen da, estalperik gabe. Horregatik udan partean soilik joki daitezke, eguraldi egiten duenean. Baina pilotariak neguan jokatzen behar dute, larruzko tresna erabilera ikasi eta hobetzeko. Hori dela eta, Laxo elkarteak paxaka izeneko joko mota berreskuratzea otu zitzaion.

Paxaka horretarako frontoian jokatzen den moduko bat da. Raketaren ordez, bote txekor larruzko 900 gramoko

tresna erabiltzen da, baita 250 gramoko larruzko pilota ere. Zenbatzeko modu bera dute: 15, 30, 40 eta jokia. Paxakan bi edo hiru pilotariko bi taldek jokatzen dute bata bestearen aurka, erdian sarea dutela.

Iparraldean trinketean aritzen dira paxakan, binaka, baina Nafarroa Garaian, trinkete bakarra dagoenez, frontoi handian aritzen dira, hiruko talderekin. Pilotak frontoiko hormetan jo dezake. Hain zuzen ere, horrek egiten du paxaka ikusgarri. Iragan larunbatean, Laxo elkarteak paxaka erakustaldia egin zuten Zizur Nagusiko frontoi handian, eta ikusleak, joko berria ikusten egoteagatik hotz samar zegoen arren, biziki gozatu ziren Irurita. Oitz eta Doneztebeko pilotarien norgehiagokarekin.

Eta, laster, paxakarekin gozatzeko aukera gehiago izanen dira. Laxo elkarteak

## Tiburtzio Arrastoa

LAXOA ELKARTEKO LEHENDAKARIA

### «Paxaka aisago berreskuratuko da»

Laxo elkarteak duela hogeita bat urte ekin zion laxo jokia berreskuratzeari. Orain paxaka jokoarekin ari dira lanean.

■ Uda partean laxoan aritzen direnak neguan paxakan aritzeko berreskuratuko duzue azken joko mota hau.

Hori da, bai, gure helburua. Paxakan aritzen diren aunitz gero laxoan aritzen dira, bi jokoek tresna bera erabiltzen baitute. Horregatik, orain, negua aprobetxatzeko, prestatu dugu paxaka txapelketa. Aurten txapelketa bigarrena izanen da.


■ Laxo berreskuratuko da?

Baietz uste dugu. Laxo ez dago desagertzeko arriskuan, beste momentu batzuetan egon zen bezala. Joan den txapelketan hamabi talde izan ziren lehian. Nahiz eta laguntzarik ez izan, berreskuratuko dugu laxoa.

■ Eta paxaka berreskuratuko duzue?

Paxaka laxo baino aisago berreskuratuko dela uste dugu. Aurten txapelketan badaude hamabost talde. Gainera, badator Gipuzkoako talde bat, Zubietatik. Eta Iparraldekoek ere interesa agertu dute, baina ez dira etorriko, larunbat arratsaldean eta

igande goizetan beste txapelketa batzuk dituztelako. Baina uste dugu datorren urtean parte hartuko dutela. Bestetik, hor dugu Elizondoko Antxitonea trinketea. Ematen du bertako jabea interesatuta dagoela bertan paxaka partidak jokatzen. Hortaz, nik uste, paxakak aurrera egingen du.



Sarea, pilota eta larruzko tresna dira Paxakaren osagaiak. Pilotak 250 gramo pisatzen ditu, eta eskularruak, 900. ● OSKAR MONTERO



Paxakan pilotak frontoiko hormetan jo dezake. Horrek egiten du paxaka ikusgarri; are gehiago, pilotariak pilota jotzeko hanka arteko malabarismoak egin behar dituenean. ● OSKAR MONTERO

eta Bertizko partzuergo turistikoak antolatuta, abenduaren 9an hasiko da II. Paxaka Txapelketa. Bertan hamabost taldek hartuko dute parte eta partida guztiak Irurita frontoian jokatuko dira, larunbat arratsalde eta igande goizetan. Finalerdiak otsailaren 17an jokatuko dira eta finala, otsailaren 24an.

### Paxakan aritzea errazagoa da

Dirudienek, paxaka laxo bera baino errazago berreskuratzen ari da. «Paxakan jokatzea laxoan aritzea baino errazagoa baita», Tiburtzio Arrastoa dioenez. Alberto San Miguel pilotaria iritzi berekoa da. Bera 32 urteko oiztarra dugu. Duela hogeita bat urte, laxoan hasi zen. Hamasei urte zituenerako handienekin jokatzen zuen. Hortaz, laxo berreskuratzen hastez batera hasi zen San Miguel laxoan. Orain paxakan ere aritzen da. «Paxaka laxoan aritzeko osagarri bat da teknika aldetik», dio San Miguelek. «Laxoan eguraldi onarekin jokatzea behar dugu; egun txarrekin ezin gara aritu. Hortaz, neguan ezin dugu. Baina zerbaitetan, ez bazara egunero aritzen, teknika galtzen duzu. Horregatik, berreskuratuko nahi dugu paxaka. Iparraldean trinketean aritzen dira. Guk, zoritxarrez ez dugu trinketerik, eta jokia pixka bat moldatu behar izan dugu».

Nahiz eta osagai berak izan, paxakaren eta laxoaren lastertasuna arras ezberdina da. Laxoan bizkorrago ibiltzen da pilota, tiki-gaioa denez, eta jokalekua anitzez handiago da. Horregatik, zaila da laxoan aritzea. «Ulertzeko ere zaila da», gaineratu du San Miguelek. «Laxo baino jende gehiago ematen du izena paxakan, abiaduran ez baita joko berritza. Paxakan orain aritzen diren guztiak ez dira gero laxoan aritzen. Batzuek beldurra ematen die».

Beraz, paxaka berreskuratze bidean da, eta laxoari baino gutiago kostako zaiola dirudi. Oraindik, ez dute gaztetxoentzako txapelketarik antolatuta, baina, San Miguelek dioenez, «jendea animatzen bada», egingen dituzte.

→ Asier Azpilikueta



## Biktoriano Huiziren harreman tragikoez (I)

**Badirudi Biktoriano Huizirena gorantz doan balioa dela. Iazkoan, ekainaren 24 eta 25 egunetan eta Etxarri-Aranatzen bertan, bere euskal gramatikaren mendeurrena betezen zela eta, Euskaltzaindiak omenaldia egin zion, eta behiala ere Biktorianoren berri ematen duen artikulua berri zenbait agertu da aldizkari espezializatuetan.**



**B**iktoriano Huizi González de Villazón 1860ko irailaren 6an jaio eta 1938ko irailaren 19an zendu zen Etxarri-Aranatzen. Iruñeko apezgaitegian apezte ostean Abaurrepea, Larunbe, Unanu eta Uharteko Arakilen izan zituen bete beharreko lehenbiziko ardurak. Nafarroan orduan ere euskarak nozitzen zuen egoera itogarriaren lekuko izan zen, eta urte bertsuetan hainbat euskaltzaleren ekimenei esker ekintza itzaropentsuak aurrera atera baziren ere, huraxek ez zizkion Huiziri begiak lausotu eta errealtatea ezkatatu, ez eta erakarri ere, ordea eta tamalez. Hemezortzi urteko apezgai gaztea genuen Biktoriano Nafarroako Euskara Elkarteak 1878an bere ibilbideari ekin zionean bizitza laburreko aldizkari kultu bezain berritzailearen lehenbiziko alea argitaratu. Campionen *Orreaga* 1880an atera zen argira, eta lau euskalki literarioen gramatika, berriz, 1884an. Bestalde, ezagun da Campionen eta Bonaparteren artean eztabaida emankorra gertatu zela Sakanako euskalkia klasifikatzen saiatzerakoan. *Euskara* aldizkarian zenbait artikulua agertu ziren horren inguruan 1881ean Campionek zein Bonapartek eginak. Alabaina, ez bata ez besteak, beren kanpo-lanetarako ez idazkietarako ere ez zuten Huiziren iritzia jaso.

Bistan denez, gaztegia zatekeen etxarriarra, eta

anartean, ezagunak zutekeen bi ikerlariek. Edonola ere, bestelakoa izan zitekeen afera, eta Huizi Campionen gustukoa gertatzen ez zelakoa bagaude, batetik ideologikoki kidea ez baitzuen, eta bestetik maila pertsonalago batean Huizi jendaki zaila baitzen. Campion Iruñean bizi zen, eta ez da dudarik apezgaitegikori ezagun zuenik. Areago esanzen dugu, Campionek 1869-1902 urte bitartean apezgaitegiko errektorea zen Damaso Legaz Laurzena baztandarrarekin harreman handia izan zuen, Euskara Elkar-

matikaren aipamen menderen ere egin.

Garai bertsuan, 1897an hain zuzen ere, Nafarroako euskarazko katedrarako oposizioa deitu zuen Nafarroako Aldundiak, Huizik berak bere gramatikaren sarreran jaso bezala. Ez zen hura lehenbiziko aldian oposizioetarako deialdia zabaltzen zena, baina aurrekoetan Campionek eta Legazek osaturiko epaimahaiak ez zuten aurkeztutakoan maila onartu eta desestimatu zuten oposizioa, 1897ra arte katedrarik gabe geratu ginelarik. Huizi ote zegoen 1887ko deialdian aurkeztu zirenen artean? Ez dakigu, baina baliteke. Kontua da bigarren deialdian, 1897koan hain zuzen, Huizi ez zela aurkeztu, nahiz orduko gramatika idazten hasia izan. Zergatik bada? Lehenengo deialdian maila eskaseko jende gutxi aurkeztu bazen, oraingoa aukera gehiago egonen ziren gure Huizirentzako. Beraz,



goaren kide eta Campionen beraren *Los últimos navarros* idazkaren itzultzailea zena. Ez zen batere zaila, beraz, Legazek bitartez Campionek Huizirengana jotzea Sakanako euskararen gaineko zalantzen argitzera. Alabaina, ez zen horrela gertatu. Ildo beretik, Campionek bere *Orreaga* baladarako ez zuen Etxarriko aldaerarik prestatu, aukeran bazuen ere, eta 1884ko gramatika erraldoiaren laburpen txikia 1908an argitaratu zutenean, ez zuen Huiziren gra-

matikaren aipamen menderen ere egin. Garai bertsuan, 1897an hain zuzen ere, Nafarroako euskarazko katedrarako oposizioa deitu zuen Nafarroako Aldundiak, Huizik berak bere gramatikaren sarreran jaso bezala. Ez zen hura lehenbiziko aldian oposizioetarako deialdia zabaltzen zena, baina aurrekoetan Campionek eta Legazek osaturiko epaimahaiak ez zuten aurkeztutakoan maila onartu eta desestimatu zuten oposizioa, 1897ra arte katedrarik gabe geratu ginelarik. Huizi ote zegoen 1887ko deialdian aurkeztu zirenen artean? Ez dakigu, baina baliteke. Kontua da bigarren deialdian, 1897koan hain zuzen, Huizi ez zela aurkeztu, nahiz orduko gramatika idazten hasia izan. Zergatik bada? Lehenengo deialdian maila eskaseko jende gutxi aurkeztu bazen, oraingoa aukera gehiago egonen ziren gure Huizirentzako. Beraz, pentsatzekoa da epaimahaiaren zeudena ez zirela ongi moldatzen etxarriarrarekin, eta horrek etsiaraziko zuen eiki. Ezagun denez, oposizio hartan Migel Iñarra Mitxelena apaiz oiartzuar gaztea gailendu zen, Huizi baino bost urte gazteago zena. Huraxe olerkari handia zen, ez ordea gramatikalaria, eta handik gutxira hil zenean, katedra luzarotan hutsik geratu zen berriro ere. Ez da zalantzarik, objektiboki begiratuta, aukera gehiago izan behar izan zituela gure Huizik Iñarrak baino, hala eta guztiz ere...



Izarretatik munduari begira dago Armentia astrofisikoa. • MIKEL SAIZ

## «Egungo izarra Tamara da»

**U**nibertsoaren estazioa Iruñeko kosmosean Yamaguchiko satelitean dago. Aste honetan zazpi urteko esne bidea bete du planetarioak. Bertan, Javier Armentia astrofisikoa Lurra eta Ilargia bezain biribilak diren erantzuak egin dizkigu.

### ■ Nor gara gu?

Fantasiaren ustez, estralurtarren esperimendu genetikoa gara. Kristauen esanetan, Jainkoaren seme-alabak. Nire aburuz, errealtatea gero eta hobeki ezagutzen dugun gizakiak.

### ■ Non gaude?

Aldaketaren eta garapenaren sasoi da. Abiadura handiko zientziaren aroan bizi gara.

### ■ Nolakoak gara?

Inoiz baino gehiago dakigu, baliabide asko dauzkagu eskura; halere, nora ezean gabiltza. Elektroentzefalograma lauaren kulturak inguratzen gaitu. Tamararen neurrikoak egin nahi gaituzte. Zientzia gizartearen oso aurretik doa.

### ■ Zer egin dezakegu?

Rappelen bila joan aurretik, gure barneari begiratu behar diogu. Bertan dago erantzuna. Itota gaudenean, arnasa hartu behar dugu. Beraz, apurtzeko garai egokia izan daiteke hau, erronka berriei aurre eginez.

### ■ Zertan aritu gara?

Mende honetan, gizakiok erakutsi dugu okerrena eta hoberena egiteko gai garela. Bizi-itxaropena luzatzea eta hainbat gaixotasun sendatzea lortu da, baina ingurugiroari kalte egiten jarraitzen dugu, eta geure burua suntsitzeko gauza garela argi utzi du ener-

gia atomikoak. Beraz, etikaren mugak zehaztu behar dira lehenbailehen. XXI. mendean, etikaren bidetik jo behar gogok.

### ■ Zer kezkatzen gaitu?

Oinarriko galderekin ez dute erantzunik jaso orain arte. Nondik gatoz, nora goaz, nola sortu ginen... Errealtatearen azterketa eta inguruaren ikerketa sakona egiten jarraitu behar da.

### ■ Bakarrik gaude?

Beste planeta batzuetan bizi egon liteke. Zenbaiten ustez, gure artean omen daude. Gainera, gu salbatzeko asmoa daukate. Froga argirik ez dagoen bitartean, fantasia alde batera utzi behar gogok. Garai bateko espiritu, deabru eta aingeruen lekuan, plater hegalariai ditugu orain.

### ■ Urruti al zaude?

Izarren artean bizi naiz, baina ongi kokaturik nago. Teleskopioaren bitartez munduaren errealtatea zuzen aztertzeke aukera daukat. Ihes egin nahi dudanean, unibertsoaren infinitoan galtzen naiz.

### ■ Zer egin duzu?

Zazpi urte bete diru planetarioak. Aisialdia eta kultura eskaintzen diogu gizarteari. Gozamina eta hausnarketa uztartu nahi ditugu. Nafarroako kate astunak apurtu eta ekarpen berriak eskaini nahi dizkiogu herrialde honi.

### ■ Non dago katebegi galdua?

Duda izpirik gabe, Interneten. Komunikazioaren sarea oinarritik sortu da eta sekulako aldaketak eragin ditu. Sistemak ez du irenstea lortu. Halere, botere mediatikoaren atzaparra ez dago urruti.

## Ziria

• Motxorrosolo •

### Itsuairena

**U**rteak ez dira alferrik igaro. Egungoa itsuairena egin nahi dutenen ustezko paradisu da. Inoiz hizpide, sekulan ez irizpide. Garai urrutia goetan asaldatzen zenak ilunpe distiratsuan jarraitzea du xede. Argiak izua baitakar. Bizkitartean, jukutriak bere horretan dirau.



## Rosa Urra

DENBORA BANKUAREN BULTZATZAILEA NAFARROAN

# «Bizitza pribatuko zereginetan ematen dugun denbora baloratu nahi dugu»



● MIKEL SAIZ

**ASIMA elkarte soziokulturala da, irabazi-asmorik gabekoa eta Iruñerriko emakumeek osatua. Elkarte horren ekintzek aukera berdintasuna dute helburu, horretarako esperientziak eta iritziak elkarri emateko topaguneak sortuz eta, aldi berean, «gizartean era aktiboan parte hartuz», ASIMAKo lehendakari Rosa Urrak dioenez.**



**I**RAGAÑ MAIATZEAN, ELKARTEak Katalunian egin Denbora Bankua aurkeztu zuen Nafarroako hiriburuan: lana ordaintzeko, denbora erabiltzen zuen ekimena. Lehenengo urtean, proiektua Donibane auzoan egingen da, gero beste hainbat lekutara zabalduko delako itxaropenean.

#### ■ Zer da Denbora Bankua?

Dirurik gabe funtzionatzen duen lehen bankua da, bakarra. Bertan, truke balioa denbora da, gure auzoko pertsonen eta elkarteek eskaini eta eskatzen ahal duten denbora. Hala, pertsona batek zerbitzu bat eskaintzen du eta, horren truke, beste zerbitzu bat eskatzen du.

Lan guztiek berdin balio dute, aholkularitza fiskalak zein leihoen garbiketarako, esaterako. Bi lagunek, zerbitzu truke bat egiteko ados jartzen direnean, taloi batean islatzen dute, eta gero taloitegien fondoa Denbora Bankuko idazkaritzara

helarazi behar digute, geuk trukeen kontrola eramateko. Oraingoz, proiektua Iruñeko Donibane auzoan bakarrik egingo dugu.

#### ■ Zein da proiektuaren filosofia, beraz?

Baloratu nahi dugu bizitza pribatuari dagozkion zereginetan ematen dugun denbora, etxeko lanetan, beste lagunen zainketan, gure aisian; hala nola, neurtu nahi dugu, baita partekatutako ere, gizonezkoek eta emakumezkoek zeregin horiei eskaintzen diegun denbora,

«Neurtu nahi dugu gizonezkoek eta emakumezkoek gure zereginetara eskaintzen diegun denbora, eta elkartasunerako, konfiantzarako eta pertsonen arteko trukeerako gaitasuna berreskuratu nahi dugu»

eta elkartasunerako, konfiantzarako eta pertsonen arteko trukeerako gaitasuna berreskuratu. Helburua, azken finean, gizarte solidarioagoa egitea da, bizitzako zereginak berdin partekatuz eta baloratuz.

#### ■ Nola bururatu zitzaizuen ekimen hau martxan jartzea?

Duela bi urte abiatu zuten, Bartzelonan. Ekimen honen jatorria ipar Europako herrialdeetan dago, baina Italian izan du arrakasta handiena: han 80-90 denbora banku daude. Kataluniako ekimena Europako proiektu baten bariantza garatu zen. Bertako elkarteak Milanera joan ziren denbora bankuaren funtzionamendua ezagutzera. Haien esperientzia ikusi eta gero, Iruñeko emakume elkarte batek Bartzelonako teknikari bat ekarri zuen hitzaldi batera, eta guk ideia hemen aurrera ateratzea erabaki genuen.

#### ■ Nolako harrera izan du ekimenak Iruñean?

Hasieratik oso ona. Emakumearen Sailari asko gustatu zitzaion proiektua, eta akordio bat sinatu genuen harekin, aurrera ateratzeko. Otsailaren bukaeran edo Bartzelonan izan ginen, hango Denbora

### soslaia

Rosa Urra, 56 urteko iruindarra, Donibane auzoan bizi da, eta bost urte daramatza ASIMAn, azkeneko biak lehendakari bezala. Euskaldun berria da eta, bere garaian, Merkataritza irakasle izateko ikasi zuen, baita irakasle moduan lan egin ere

Orain elkartean sartzen ditugun eguneko ordu gehienak. Haren aburuz, ASIMAK jada «egonkortasuna lortu du, eta kalean ezaguna da». Momentu honetan ehun emakumek baino gehiagok osatzen dute.

Denbora Bankuari dagokionez, Rosa Urra itxaropentsu dago. «Guk ilusio handia jarri dugu proiektuan, eta komunikabideek lagundu gaituzte ezagutzera emateko orduan».

Bankuaren bigarren urteurrena ospatzeko antolatuta zen mahai-inguru batean. Katalunian elkartean zeukaten material guztia eman ziguten, eta hurrengo hilabeteetan Doni-

bane auzoko taldeekin harremanetan jarri ginen. Maiatzaren 30ean jendaurreko aurkezpena egin genuen, eta jendea berehala hasi zen izena ematen. Dagoeneko Denbora Bankuko lehenengo buletina banatu dugu, ditugun eskaera eta eskaintzekin.

#### ■ Zein zerbitzu eskaintzen eta eskatzen dira gehien?

Eskatzen dira, batez ere, adinekoak eta haurrak zaintzeko pertsonak, etxeko konponketak, zerbitzu juridikoak eta finantza aholkularitza. Bada eskaera bitxirik ere: ingelesez solastatzeko aukera eskaini du Jamaikako emakume batek, eta horren truke euskaraz mintzatzeko zaion norbait nahi du. Informatika klaseak ere asko eskatzen dira.

#### ■ Zer egin behar dute Denbora Bankuan parte hartu nahi dutenek?

ASIMARA deitu behar du, 948-196016 telefonora, eta Denbora Bankuan izena eman, eta eskatzen eta eskaintzen duen zerbitzua zehaztu. Gero, elkarrizketa egingo diogu, kide fitxa bete zezake. Berak egin eskaera eta eskaintza hurrengo buletinean agertuko dira; bi hilean behin eguneratzen dugu, eta, bertan, zerbitzuak eta telefono zenbakiak ageri dira. Hori guztia egin ondoren, guk trukatzeko taloitegi bat emanen diogu, eta bera jarriko da harremanetan interesatzen zaion pertsonarekin.

#### ■ Zer espero duzue?

Espero genuen baino bi aldiz kide gehiago lortu ditugu: 25. Baina gure itxaropena kopuru hori handitzea da, zerbitzu eskaintza zabalagoa izan dadin. Nire ustez, gizarte lan garrantzitsua egiten ari gara, eta horretan sakondu nahi dugu. Batez ere, gauza guztiak diruarekin erosten ez direlako ideia hedatu nahi dugu.

→Eva Aranguren





## Nafar Kronika

Gontzal Agote

### Aurrera eta kitto!

«G arzón es un juez que se inventa casi todo». Navarro epailea dixit, eta arazotxo nahikotxo ekarri dizkio adierazpen horiek egin izanak, agian esan duena esan duen lekuan esan izanak. Nik zera gehituko nuke, delituaren muga non dagoen oso argi ez izan arren: irudimen handiko pertsonaia dela aipatutako jauntxo hura.

Ez da ustekabea izan, aspalditik jakin bagenekien AEK jomugan zegoela, haien kontrolpean ez den oro dagoen moduan, eta oraingo honetan ere, epeka idazten ari den eleberrri honen azken atala irakurri dugunean (aldatu beharko litzaioke izenburua, 18/98 ez baita batere komertziala) barregurea sortuko zitzaigun, baldin eta gu guztion askatasuna, eta bereziki pertsona jakin batzuen, horren menpe egongo ez balitz.

Zorionez, AEK barnetik ezagutzeko parada izan dut, eta bertan eman ditut amaitzen hasia den nire gaztarorearen memento ahaztezin asko. Zenbaitetan izandako gorabeherak erraz ahazten dira atzera begirako orokor baten baitan: bertan utzitako lagunak, ezagututako jendea, bizi izandako esperientziak, bilera amaiezinak, euskaltegiaren konponketak, kultur gintza, klaseen prestaketa, afari eta gaupasak, ikasleen aurrerapausoak eta, bi urtetan behin, Korrika (barakatuko al dit irakurleak kutsu nostalgikoa?).

Aitorpen bezala hartu ahal duzu epaile txit gorena, ni ere erruduna bainaiz. Are gehiago, eskandalagarria iruditu ahal bazaizu ere, esan beharra daukat ez naizela batere damutzen, egindakoa-ekin gozatu dudala ezin dut ukatu. Eta berriro egingo nuke. Atxilotu ezazu nire pentsakera, saia zaitetz AEK hondoratzen. Halako bi sortuko dira. Kapaz izango zara hizkuntza bat kartzelatze-ko? Agindua jasotzen duzunean seguru saiatuko zarela, baina alferrik. Zu eta zure nagusiei aurre egiteko dugun armarik eraginkorrena zabaltzen segituko dugu bazter guztietan, bihotzean eta ahoan. Muxu bana guztientzat eta aurrera.

## gure aukerak

### MUSIKA

- **Burlata:** Gaur, *Alkora* dantza eta perkusio emanaldia eskainiko dute 20:00etan, Axular elkarteak.
- **Antsoain:** Buitraker eta Doctor Deseo taldeek kontzertua eskainiko dute gaur, 22:00etan, Gaztetxean, eta ondoren DJ jaia izanen da.
- **Agoitz:** Nafarroako Euskal Kantu Txapelketaren bigarren kanporaketa egingen dute bihar, 17:00etan, Toki Eder pilotalekuan.

### ANTZERKIA

- **Betelu:** *Ortzadarraren jatorria* antzezlan eskainiko du gaur TEN Pinpilinpauza taldeak, 18:00etan, frontoian.
- **Etxarri-Aranatz:** Trokolo taldeak *Zalapartaka* ikuskizuna emanen du bihar, 18:00etan, Kultur Etxean.
- **Mutiloagoiti:** Madrilgo Compañía de Cuentos y Cantos taldeak Bernardo Atxagaren *Cuentos de Obaba* antzezlan taularatuko du igandean, 20:00etan, Kultur Etxean.
- **Auritz:** Txirristra taldearen txotxongiloak Menditxuri aretoan, asteakenean, 16:30ean.

### HITZALDIK

- **Iruñea:** Gaur, 19:30ean, euskararen egoeraren inguruan mintzatuko dira Jose Maria Satrustegi, Jose Manuel Urroz eta Kiki Diez de Ultzurrun, Hizkuntza Eskolan.
- **Mutiloagoiti:** Carmen Salgado margolari peruarra bere lanaren gainean solastatuko da asteartean, 20:00etan, Kultur Etxean.

### ERAKUSKETAK

- **Iruñea:** Gaurkoa da Gazteriarren Etxean *Gozamenez* erakusketa ikusteko azken

aukera, 11:00etatik 14:00 etara eta 17:00etatik 22:00etara. Sexualitatea bide ezberdinetatik ezagutzeko aukera ematen du erakusketa honek.

- **Etxarri-Aranatz:** Mireia Ormazabal etxarriarraren argazki erakusketa izanen da abenduaren 10a arte Kultur Etxean. Erakusketa bulego eta zinema orduetan izango da zabalik.
- **Burlata:** *Euskal Herriko zinemaren historia (1896-1998)* Joakin Azkarate karrikako kultur aretoan, abenduaren 12a arte.

### BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Bihar, ohi denez, Arkakusoan Azoka Ttikia egingen dute, goizeko hamarretatik aurrera, San Jose plazan. Bertan antigoleko eta bigarren eskuko gauzak saldu edo trukatzan ahal dira.
- **Gares:** Euskararen Kultur Asteari akabera emateko, gaur Izarbeibarko euskaltzaleen lehen herri poteoa egingen dute, Mena plazan, 19:00etan hasita. Ondoren, 20:00etan, Hi Blai taldearen kontzertua izanen da Erabilera Anitzeko Aretoan; eta,

azkenik, AEKren aldeko herri afaria egingen dute 21:30ean. Izena emateko deitu 948-340007 telefonora.

- **Iruñea:** Eguberriak direla eta, San Fermin peña Arrosadiko familia behartsuentzako jostailu eta liburuak biltzen ari da bere lokaletan (Gelbenzu, 13-15) edo Euskadiko Kutxaren erabilera anitzeko aretoan, astelehenean ostegunera, 18:00etatik 20:00etara. Informazio gehiago 948-239448 telefonoan.

• JOXE LACALLE



### Txintik ez

Atxilotetak, jazarpenak, atxikitzeak, miaketak... irteerarik gabeko karrika. Iragan ostiraleko Donibaneko gertakariak eta ondorengo operazio polizialak iruindar askoren bizitza aztoratu dute. Gazte baten bila ari ziren, eta gazte guztiak ziren susmagarri; berdin aktorea edo edari banatzailea. Eta bilaketa horretan, herritarren eskubideak behin eta berriz urratu egin dituzte. Baina hauei txintik ere ez. «Hemendik ezin zaitezke pasatu, buelta eman».